

Erabakia eta eskubidea: demokraziaren etengabeko berrikuntza

Zubiaga, Mario

Erabakitzeko eskubidea, adierazpen demokratiko legez, politikotasunaren (lo político) muinean kokatzen da. Erradikalizatzeko demokratiko garaikidearen gakoa bilakatu da kontzeptu hau. Zentzu honetan, herriaren botere konstituziogilearekin du zerikusia, eta eskubide hori modu arautuan bideratu baldin badaiteke ere, askotan legedi arrunta gainditzen duen desobedientzia zibilaren eskutik etorriko da. Herri-erabakia, eduki konstituziogilea hartzen duenean, mobilizazio prozesu bezala ulertu daiteke, eta mobilizazio oro obedientziaren (politika, errutina gisa) eta desobedientziaren (politikotasuna, erabaki gisa) arteko mugan dago. Erakunde/mobilizazio tentsio sortzaile hori Kataluniako kasuan gardenki ikusi da. Desobedientzia zibil soberanista legez definitzen den marko teorikoan.